

BERMEOKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMO ETA ENPRESA PUBLIKOEN AHOLKULARITZA ETA DEFENTSA JURIDIKOA EDOZIEN AUZITAN ERAMATEKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.

1. Artikulua: XEDEA

Bermeoko Udalaren, bere menpeko Erakunde Autonomoen eta BERUALAREN Aholkularitza Juridikoa eta Defentsa edozein auzitan.

2. Artikulua: ASISTENTZIA ZERTAN DATZA

- A) Aholkularitza juridikoa: Ondorengo betebeharrak suposatuko ditu, Udalarekiko eta aipatutako entitate horrekiko:
- Alkateak, Gobernu Batzordeak, Osoko Bilkurak, Erakunde Autonomoetako eta Berualako organoak zein zuzendariak eta idazkari orokorrak planteatutako gaietarako buruzko idatzizko txostenak egitea.
 - Alkateak, zinegotzi delegatuek, idazkari orokorrak, zuzendariak eta teknikariak idatziz zein telefonoz egindako kontsultei erantzutea.
 - Alkate eta zinegotzi delegatuek eskatutako edozein batzarretan parte hartzea aholkularitza eskainiz.
 - Alkateak, zinegotzi delegatuek, zuzendariak edo idazkari orokorrak eskatutako aldizkako presentzia fisikoa izatea udaletxean.
- B) Defentsa juridikoa: Edozein jurisdikziotan udalaren eta aipatutako entitateen defentsa juridikoaz arduratzea, baita beraien agintari eta langileena, erakunde horreekaz daukeen harremana eta funtzinoetatik eratorritakoa bada.

Aitatutako asistentzia, lote honeetan zatitzen da:

1. Lotea: Aholkularitza eta defentsa juridikoa Herri Administrazio arloan.
2. Lotea: Aholkularitza eta defentsa juridikoa zibil arloan.
3. Lotea: Aholkularitza eta defentsa juridikoa zigor arloan.
4. Lotea: Aholkularitza eta defentsa juridikoa lan arloan.
5. Lotea: Aholkularitza eta defentsa juridikoa merkataritza arloan.

3. Artikulua: HIZKUNTZA

Aholkularitza juridikoari jagokonez, txosten guztiak zein kontsulten erantzunak euskaraz eman beharko dira.

Defentsa juridikoa ere, bere izapide guztietan euskaraz egingo da.

4. Artikulua: KAUDIMEN TEKNIKOA

Enpresariak bere kaudimen teknikoaren hauen bitartez kreditatu beharko du:

- a) Ikasketa-tituluak eta profesionalak.
- b) Azken bost urtetan enpresariak toki administrazioekin egindako aholkularitza juridikoaren kontratuak.
- c) Baliabide materialen eta pertsonalen deskribapena.
- d) Parte hartzen dan lote bakoitzeko espezialitate horretan aditua dan abokatu bat egotea ezinbestekoa izango da (abokatu kolegiatuak).
- e) Lehenengo lotean parte hartzeko, ezinbestekoa izango da ekonomista bat egotea, toki administrazioko kontabilitate eta zergetan aditua.

5. Artikulua: FINANTZA - KAUDIMENA

Enpresariak bere finantza kaudimena hauen bitartez kreditu beharko du:

- a) Finantza erakundearen txostena.
- b) Urteko kontuak.
- c) Negozio-zifrak.
- d) Arrisku profesionaletarako, babes eta kalte ordainetarako aseguruak.

6. Artikulua: ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

1. Prezioa:	% 30
2. Irabazitako epaien kopurua	% 30
3. Emango diren zerbitzuak:	% 15
4. Beste hobekuntza batzuk:	% 15
5. Aurkeztutako lan proiektuaren ezaugarriak eta planteamendu orokorra:	% 10

Irizpideak baloratzeko Administrazio-baldintza zehatzen orriko 18. Atalean xedatutakoa hartuko da kontutan.

7. Artikulua: LIZITAZIO MOTA ETA KREDITUA IZATEA

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, lehiaketa erabiliz.

Kontratu hau burutzeko kreditua nahikoa egon beharko dau 2016eko Aurrekontu Orokorraren kontura.

8. Artikulua : EPEA

Aholkularitza eta asistentziaren epea 2 urtekoa izango da. Beste bi urte arte luzatzea posiblea izango da enpresariaren eta Udalaren arteko adostasuna badago, beti ere, jatorrizko kontratua amaitu baino arinago.

9. Artikulua: ESKAINTZAK

Lizitatzailleek eskaintzak asistentziaren xede diren zerbitzu guztien prezioak zehaztuz eta zein loteari jagokozan modu argian adierazota aurkeztuko dabez.

Horretarako, Aholkularitzaren ordu/prezioa finkatuko da, loteka adierazota, eta BEZa modu egokian bereizita. (Hau da, lote bakoitzean, lote horretarako proposatzen dan ordu/prezioa zehaztu beharko da).

Defentsa juridikoari jagokonez, prozedura mota bakoitzeko prezio finkoa aurkeztu beharko da eta, lote bakoitzean, lote horri jagokonez jurisdikzino prozedura mota ezbardinak jaso dira, modu egokiak desglosatuta eta BEZa bereizita. Desglosetik egiten ez bada, prozedura mota ezbardinentzat prezio berbera proposatzen dala ulertuko da. (Hau da, lote bakoitzean, jurisdikzino horretako prozedura ezbardinen prezio finkoa zehaztu beharko da. Lote bakoitzeko prezio bakarra aurkeztuko balitz, prozedura guztientzat prezio hori proposatzen dala ulertuko da).

10. Artikulua: BEHIN BEHINEKO BERMEA

Lizitazioan parte hartzeko Udaleko diruzaintzan 3.480,8 €-ko behin behineko bermea jarri beharko da (kontratu honen prezio estimatuaren %3).

Behin behineko bermea aurkezten ez duten parte hartzaileak lizitazio prozesutik kanpo geratuko da.

11. Artikulua: BEHIN BETIKO BERMEA

Behin betiko bermearen zenbatekoa, baldintza administratiboko orrietan azaltzen den moduan, prezio estimatuaren %5 izango da, hau da, 5.801,3 €..

12. Artikulua: AZPIKONTRATAZIOA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearekin bat etorriz, Aholkularitza eta defentsa juridiko lanetan ez da azpi kontrataziorik onartzen.

Baimendu ahal izango da lan berezi edo instrumentaletarako bakarrik.

Bermeon, 2015ko abenduaren 2an.